

Itsuentzako betaurrekoak

Itsuei lagundu asmoz, Frantzia Tours hiriko laborategi batek sonarrez hornitutako betaurrekoak diseinatu ditu itsuentzat. Aparatuak ultrasoinuak igortzen ditu etengabe, eta aurrean oztoporen bat aurkitzen dutenean analizadoreak isladatutako uhinak aztertzen ditu. Itsuak orduan alarma-seinalea entzuten du, baina seinalea ez da beti berdina. Oztopoa oso gertu dagoenean eta handia denean jotzen du alarma ozenena.



Frantzia Tours hiriko laborategi batek sonarrez hornitutako betaurrekoak diseinatu ditu itsuentzat.

Sistema hobetzeko oraindik saiakuntzak egin beharko dituzte, baina nolahi ere, betaurreko hauek beste sistemen (hau da, bas-toiaren eta abarren) lagungarri izango dira.

Automobil barruko temperatura

Automobila eguzki-galdatan ordubete edukiz gero, barruko temperatura oso gora igo daiteke; 95 °C ingururaino eserlekuetan kasu batzuetan. Arazo larria izaten da hau zenbait lurraldetan (hegoaldean eta udan batez ere), eta nolabait arintzearen Pariseko Meagintza Eskolako ikerlariak automobil barruko konbektzio termikoez eta materialen ezaugarri optikoez baliatu dira. Erabilitako sistemei esker automobilaren barruan temperatura nekez igozten da 40 °C-tik gora. Bide batez, aire egokitu-tuko sistemen energi kontsumoa ere asko jaisten da. Ez da ahaztu behar aire egokituak kontsumoa asko igozten duela.

Haurdunentzako gerrikoak

Estatu Batuetan General Motors etxek Michigan-en dituen laborategietan, emakume haurdunentzako automobil-gerrikoak probatzen ari dira. Saiakuntzetan, fetuaren alderdian kaptoreak dituen manikia erabiltzen dute istripuetan izaten diren kalteak



Estatu Batuetan General Motors etxea, emakume haurdunentzako automobil-gerrikoak probatzen ari da.

neurtu ahal izateko. General Motorsek dioenez, saiakuntza hauek lortutako emaitzen berri beste automobil-fabrikatzaileei ere emango zaie.

FBI eta hatz-markak

300 milioi hatz-markaz osatutako artxi-boari etekina atera nahi bazaio, derri-gor informatikaz baliatu beharra dago. Leku askotatik eta urrutitik erabili ahal izango den datu-base informatikoa behar da. Datu-basea handia denean ordea, tratamendu informatikoak berak ere luzeegi jotzen du, eta irtenbidea informazio-masa konprimatzea da. Konprimatzen denean, dena den, funtsezko informazioa ez da aldatu behar. Hau guztia dela eta, FBIko zientzilariek Yaleko unibertsitateko Coifman irakasleari dei egin diote, irudiak kon-

primatzen aditua delako. Honek aplikatzen duen metodo matematikoari esker, hatz-markaren hasierako informazioa irudi-zati txiki batera murrizten da, funtsezko informaziorik galdu gabe.

FBIk dioenez, 25 milioi dolar aurreztu ditu hatz-marken bilketa-eta informatizazio-lana dela eta. Sistema berria 1995. urtean ezarriko da erabat eta pertsona susmagarria telefono bidez identifikatzeko minutua beharko da (orain 20 minutu behar izaten dira).

Kortxokentzaille berezia

Argazkian erakusten dena, botilei kortxoa kentzeko aparatu elektrikoa da. Botilaren muturrean ipini orduko hasten da lanean, eta kortxoa atera bezain pronto soinetik kendu eta kanpoan uzten du. Hori guztia burutzeko bost segundo besterik ez ditu behar. Edozein entxufetan konektatuta kargatzen da aparatu hau.

Botilei kortxoa kentzeko aparatu elektrikoa.

